

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Garapen nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten 0-6 urte bitarteko adingabeentzako laguntza ekonomikoen 2024ko deialdi publikoa

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak, 2024ko apirilaren 18an egindako bilkuran, laguntza deialdi hau onestea eta argitaratzea erabaki du. Hona hemen hura arautuko duten

OINARRIAK

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

1.1. Deialdi honen helburua da Vitoria-Gasteiztik 35 kilometrotara baino gehiagotara bizi diren 0-6 urte bitarteko adingabeei banako laguntza ekonomikoak ematea 2024. urterako, Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen arabera.

1.2. Laguntza hauen helburua da hartzaileen bizi kalitatea hobetzea eta haien egoerak sortutako premiei erantzutea. Horretarako, laguntza ekonomikoa emango da, laguntza espezializatua jasotzeko egin behar dituzten gastuak konpentsatzeko.

Bigarrena. Baldintzak

2.1. Funts publikoak eskuratzen dituen izango da dirulaguntzaren onuraduna, eta berak gauzatu behar du dirulaguntza eskuratzeko arrazoitzat aurkeztu duen jarduera edo bera egon behar da emakida eskuratzea bidezko egiten duen egoeran. Aitak, amak edo erakunde publiko eskudunaren aurrean formalizatutako tutoretza edo harrera arrazoiengatik ardura dutenek eskatu eta izapidetuko dute laguntza, betiere adingabearekin bizi badira.

2.2. Gizarte Politiken Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onesten dituen uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren 13. artikuluan ezarritako baldintzez gain, laguntza eskatzeko unean honako baldintza hauek betetzen dituztenak ere izan daitezke laguntzen onuradunak:

a) 0-6 urte izatea.

b) Benetako bizilekua Vitoria-Gasteiztik 35 kilometro baino gehiagora izatea.

c) Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan erroldatuta egotea eskaera egin baino lehenago, eta erroldatuta egoten jarraitzea espediente izapidetzen den bitartean. Bestela, Trebiñuko enklabeari buruzko esparru akordioa garatzeko lankidetzaren hitzarmenaren arabera, adinekoen, desgaitasunen bat duten pertsonen eta mendekotasuna duten pertsonen gizarteratzeari eta haientzako gizarte arretari dagokienez, Trebiñuko enklabe edozein udalerritan erroldatuta egotea, gutxienez, urtebetez, etenik gabe, eskaera egin baino lehen, eta erroldatuta jarraitzea espediente izapidetzen den bitartean.

d) Tratamendua Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Erregistro eta Ikuskaritza Zerbitzuak baimendutako erakunde batek egitea, salbu eta esku hartzea 2020ko otsailaren 1a baino lehen hasitako arreta goiztiarreko programa baten barruan hasi bada, edo tratamendu hori, hurbiltasunagatik, beste probintzia edo autonomia erkidego batean egitea, lurralde historikoan ez dagoelako baimendutako zentrorik bizilekutik 35 km baino gutxiagoko distantziara; kasu horretan, lurralde horretan indarrean dagoen araudia bete beharko da, zentroen funtzionamendua baimentzeari/egiaztatzeari dagokienez.

e) Garapenaren nahasmenduak izatea edo izateko arriskua izatea, baldin hala baloratu badu organo eskudunak, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuaren I. tituluko III. kapituluaren ezarritakoaren arabera. Dekretu horrek arautzen du mendekotasun egoera aitortzeko, desgaitasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak izatea edo izateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere; Diputatuen Kontseiluaren 50/2014 eta 58/2014 foru dekretuen bidez aldatuta dago. Beharrezkoa da, gainera, fisioterapia, logopedia eta/edo erabateko estimulazioko zerbitzuen esku hartzeren bat programatuta edukitzea. Aurrekoaz gain, Euskal Autonomia erkidegoko arreta goiztiarreko esku hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan (EHAA, 45 zk., 2016ko martxoaren 7koa) xedatzen dena aplikatuko da eremu horretan.

Hirugarrena. Aurrekontua eta gehieneko zenbateko osoa

3.1. Deialdi publiko honetan araututako dirulaguntzak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2024ra luzatutako 2023ko aurrekontuaren 81201. G/231811/48000831 "Arreta Goiztiarreko Laguntzen Programa" gastuko aurrekontu partidaren kontura ordainduko dira, zeinak 200.000,00 euroko zuzkidura baitu.

3.2. Laguntzak emateko eskumena duen organoak uneko deialdirako onetsitako zenbatekoaren, gehienez, ehuneko 30eko zuzkidura gehigarria onetsi ahal izango du..

Laugarrena. Emakida araubidea

4.1. Dirulaguntza hauek lehia askeko araubidean emango dira; hala, funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztenen artean, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

4.2. Laguntzak kreditu erabilgarria agortu arte emango dira, eskaera (behar bezala beteta) 5.1 oinarrian jasotako erregistroetatik edozeinetan sartu den dataren eta orduaren araberako lehentasun ordenari jarraituta.

Bosgarrena. Eskaerak aurkeztea

5.1. Deialdi honen xede diren laguntzak emateko prozedura onuradunaren legezko ordezkariak, tutoretza, legezko zaintza edo harrera duenak eskatuta hasiko da, eta deialdi honen 055 eranskinean ageri den eredu normalizatuan formalizatuko da.

Eskaerak toki hauetan aurkeztu behar dira:

– Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erregistro orokorrean.

– Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezarritako gainerako erregistroetatik edozeinetan.

Hala eta guztiz ere, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2 artikulua dioenari jarraiki, nahitaez aurkeztu beharko dute era telematikoa, egoitza elektronikoa bidez (<https://egoitza.araba.eus/eu/-/registro-electronico-comun-ifbs>) edo beste administrazio publiko batzuen erregistro elektronikoen bidez, pertsona juridikoen, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, nahitaez bete beharreko jarduera profesional batean dihardutenek eta jarduera horren egikaritzan egiten dituzten izapideetan, eta administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera behartuta dagoen interesdunik ordezkariak dutenak.

5.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2024ko irailaren 15ean amaituko da.

5.3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Balorazio Unitate Teknikoko Arreta Goiztiarreko Zerbitzuaren preskripzio bakoitzeko eskaera bat aurkeztuko da eredu normalizatuan, eta ez da beharrezkoa izango beste dokumentaziorik aurkeztea bigarren eskaeran eta hurrengoetan.

5.4. Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Laguntzaren onuradunaren eta haren gurasoen edo legezko zaintza duenaren NANaren, AIZaren, Europar Batasuneko Herritarren Erregistroaren edo pasaportearen fotokopia. Dokumentazio hori eduki ezean, haurra jasotzen duen familia liburuaren fotokopia aurkeztu beharko da. Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

b) 012 inprimakia, familia unitateko kide guztiek sinatuta. Agiri horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak baimena izango du datu pertsonalak bildu, erabili eta/edo transmititzeko, prestazioak, laguntzak eta gizarte zerbitzuak lortu, jaso eta haiei eusteko legez ezarritako betekizunei dagokienez.

c) 013 inprimakia, banku helbideratzeari buruzkoa, banku erakundeak behar bezala sinatu eta zigilatuta, salbu eta hornitzaileari zuzeneko ordainketa berariaz eskatzen zaion kasuetan.

d) Eskatutako laguntzaren xede den ekintzaren edo zerbitzuaren kostuaren proforma aurrekontua edo faktura; bi agiri izan beharko dira 2.000,00 euroko edo gehiagoko kostua dutenean, eta hiru agiri, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa 15.000,00 eurotik gorakoa denean, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko (Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauaren 29.3 artikulua arabera).

Bi edo hiru aurrekontu edo proforma faktura aurkezteko betebeharra salbuetsi ahalko da eskatzaileak hala eskatzen badu, baldin eta laguntzaren xede den zerbitzua berezia bada eta zerbitzua ematen duen beste hornitzaile edo erakunderik ez badago.

Aurrekontuan, gutxienez, honako datu hauek jaso beharko dira: enpresa hornitzailearen identifikazioa, aurrekontuaren data, eskatzailearen datuak eta egin beharreko ekintza/tratamenduaren ezaugarrien deskribapen zehaztua.

Eskaera aurkeztu aurretik, zerbitzuak deialdiaren epearen barruan ordaindu badira, fakturaren eta ordainketaren egiaztagiriarren jatorrizkoak aurkeztu beharko dira.

e) Izapidetze elektronikoa aukeratuz gero, eskaeren dokumentazioarekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, adierazten duena bertan jasotako informazioa eta dokumentazioa benetakoak direla eta, hala eskatzen zaionean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen esku jarriko dela.

5.5 Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizios eskatuko dio Foru Ogasunari onuradunak beraren zerga betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 800,00 eurotik beherakoa bada eta urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak aldatutako otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatzeko beharretik salbuetsita badago. Onuraduna aurreko agiriak direla-eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera. Onuradunak zergak beste probintzia edo autonomia erkidego batean ordaintzen baditu, bere bizilekuari dagokion Ogasunaren egiaztagiria aurkeztu beharko du. Onuradun bakoitzak egindako eskaera guztiak aintzat hartuko dira 800,00 euroko zenbatekoa zehazteko.

5.6. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizios eskatuko dio Gizarte Segurantzari onuradunak bere zerga betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria, honako kasu honetan izan ezik: laguntza 3.000,00 eurotik beherakoa bada eta urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak aldatutako otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuak ezartzen duenaren arabera, hori egiaztatu beharretik salbuetsita badago. Onuraduna aurreko agiriak direla-eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egindako eskaeraren aurka agertzen bada, berak aurkeztu beharko ditu agiri horiek eskaerarekin batera. Onuradun bakoitzak egindako eskaera guztiak aintzat hartuko dira 3.000,00 euroko zenbatekoa zehazteko.

Seigarrena. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

6.1. Deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira 6.2 puntuan definitutako zerbitzuak ordaintzeko direnak, baldin eta 2023ko irailaren 16tik 2024ko irailaren 30era bitartean egin badira eta aurreko deialdietan dirulaguntzarik jaso ez badute.

6.2. Diruz lagundu daitezkeen zerbitzuak:

1. Arreta goiztiarra: fisioterapia, logopedia eta estimulazio orokorreko zerbitzuak, zeinak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundetik kanpoko zentroetan ematen baitira. Arreta goiztiarreko esku hartzea diruz lagundu ahal izango da, baldin eta deialdi honen bigarren klausulan ezarritako baldintzak betetzen badira.

2. Garraioa: joan-etorrietarako garraio bide publikoak zein partikularrak erabilita ere gastuak ordainduko dira.

Zazpigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehaztea eta haren mugak

7.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa Gizarte Politiken Sailak eta haren erakunde autonomoa den Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak desgaitasuna duten pertsonen eta garapen nahasmenetarako 0-6 urte bitarteko adingabeei autonomia errazteko banako laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onesten dituen foru dekretuaren 23. artikuluan xedatutakoaren arabera finkatuko da.

7.2. Aurreko paragrafoan aipatutako foru dekretuaren 23.3 artikulua ezartzen duenaren arabera, onuradun bakoitzari eman dakiokkeen laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezin izango du gainditu laguntzaren kostu erreala edo eskatutakoaren baliokideak diren zerbitzuetarako merkatuko batez besteko prezioa.

7.3. Zerbitzu baterako aurrekontu bat baino gehiago aurkeztu behar izanez gero, aurrekontu merkeenean jasotako zenbatekoa hartuko da erreferentziatzat dirulaguntza kalkulatzeko.

7.4. Arreta goiztiarreko gastuei dagokienez, benetako kostura arte diruz lagunduko da. Garraio gastuei dagokienez, adingabearen eta laguntzailearen lekualdatzeak eragindako gastuak estaliko dira, baldin eta zerbitzuak ematen dituen zentroaren eta jakinarazpenetarako helbidearen arteko distantzia 20 km-tik gorakoa bada. Garraio publikoaren kasuan, joan-etorri bakoitzaren diruz lagundu gabeko kostua ordainduko da. Garraio pribatuaren kasuan, ordaindu beharreko zenbatekoa ibilgailu partikularra erabiltzearen kalte-ordainen arloan indarrean dauden araudian xedatutakoari egokituko zaio.

7.5. Uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren 23.5 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, banaka eskatzen den laguntzaren edo ekintzaren aurrekontua hogeita hamar (20,00) eurokoa edo gehiagokoa izan beharko da.

Zortzigarrena. Prozeduraren antolamendua eta instrukzioa

8.1. Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak dauka prozedura antolatzen eta izapidetzeko eskumena, eta hark igorriko dio ebazpen proposamena Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen ebazpen emateko eskumena daukan organoari.

8.2. Organo horrek ofizioski egingo ditu eskatzaileek aurkeztutako datuak argitzeko, zehazteko eta egiaztatzen beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak.

8.3. Jasotzen diren eskaera guztiak aztertzen, batzorde teknikoak eratu da, honela osatua: Pertsona Desgaituen Arloko zuzendariorde teknikoak, Balorazio Atal Teknikoaren arduraduna eta zuzendariordetzak izendatzen dituen langileak. Batzorde hori arduratuko da txostenetan jasotako proposamenak ebaluatzeaz, aipatutako arloko zuzendariorde tekniko horrek izendatu dituen Desgaitasuna duten Pertsonen Arloko teknikariek sinatu ondoren, bai eta zuzendariordetzari jakinarazteaz ere.

Bederatzigarrena. Eskaerak ebaztea

9.1. Pertsona Desgaituen Arloko Zuzendariordetza Teknikoak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari dagokio, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Egitura eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 25. artikulua xedatutakoari jarraiki, deialdi honen babesean izapidetutako espedienteak ebazteko eskumena.

Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek, gutxienez, adierazi beharko ditu:

- Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.
- Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa, laguntzaren helburua eta ordaintzeko era.

Ebazpena, gehienez ere, hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko zaio eskatzaileari, eskaera jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espedientea etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari badagozkie.

Aurreko apartatuan aipatu den aldian berariazko ebazpenik ematen ez bada, eskaera ezesztat joko da. Nolanahi ere, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak berariazko ebazpena eman beharko du.

9.2. Ez dira onuraduntzat joko dirulaguntza onartzeko ebazpena baino lehen hil diren eskatzaileak, ez eta haien ondorengoak ere. Kasu horietan, prozedura amaitzeko ebazpena emango da, prozedura ezin bada jarraitu gerora sortutako arrazoiengatik.

Onuraduna dirulaguntza emateko ebazpena eman eta gastua egin ondotik hiltzen bada, haren legezko ondorengoei egokituko zaie dirulaguntza jasotzeko eskubidea, sorrarazitako eta jaso gabeko prestazio gisa; horretarako, aurkeztu beharreko eskaera aurkeztu beharko dute.

Baldin eta heriotza emakida ebazpena eman ondoren gertatzen bada eta gastua egin ez bada, emandako ebazpena ondoriorik gabe geratuko da, emandako laguntza ezin izan delako erabili ezarritako xederako eta, beraz, ezin izan delako bete deialdiaren helburua.

9.3. Ebazpena errekurritu egin ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121-126. artikuluek xedatutakoaren arabera.

Errekurtsorik jarri bada, horretarako egindako txosten teknikoak funtsezko aldeak baditu errekurritutako ebazpenari loturik egin den txosteneko proposamenaren aldean, balorazio batzordeak horri buruzko txostena egingo du.

Hamargarrena. Ordaintzeko era eta justifikazioa

10.1. Emandako zenbatekoa ordaindu aurretik justifikatu beharko da, diruz lagundutako gastuei dagokienez, enpresa hornitzaileak jaulkitako faktura aurkeztuta eta horren ordainketa osoa egiaztatuta, Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretuaren 24. artikulua ezarritakoari jarraiki.

Faktura elektronikoa aurkeztuz gero, haien formatua Factura-e eta Ef4ktur estandarretara edo ezartzen diren beste formatu batzuetara egokituko da. Elektronikoki izenpetutako beste edozein agiri aurkeztu behar izanez gero, konfiantzako zerbitzu elektronikoa kualifikatuen emaitza leen konfiantzako zerrendan jasotako ziurtagiriak (<https://sede.serviciosmin.gob.es/Prestadores>) onartuko dira.

Garraio pribatuko gastuak saioen fakturekin justifikatutzat joko dira.

10.2. Ordainketa egiaztatzeko, bide hauek onartuko dira:

- Banku transferentziaren ziurtagiria.
- Kreditu txartelaz ordaindu izanaren agiria.
- Enpresa hornitzailearen ziurtagiria, bertan, ondoko hauek zehaztuta daudela: ordaintzailea, zenbatekoa, ordainketa data, faktura zenbakia eta ordaintzeko era.
- 150,00 eurotik beherako fakturei dagokienez, enpresa hornitzailearen faktura, izenpea eta zigilua dituela, ordaindu dela adierazita.

Iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzko urriaren 29ko 7/2012 Legeak (EAO, 2012ko urriaren 30ekoa) 7. artikuluan adierazitakoaren arabera, ezingo dira eskudirutan ordaindu in-darreko araudian zehaztutako balio bereko edo handiagoko edo atzerriko dirutan haren kon-trabalioa duten eragiketak. Ezartzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta zerbitzu ematea zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

10.3. Garraiobide publikoak erabiltzen diren joan-etorrietarako garraio gastuak egiaztatzeko, txartel sinpleak edo noizbehinkakoak aurkeztu beharko dira, paperean, edo txartel anonimo edo pertsonalizatuen laburpenak, joan-etorriaren egunetik hurrengo hilabeteko azken egunera arte egindako mugimenduak justifikatzeko.

10.4. Hornitzaileari laguntza zuzenean ordaintzen zaionean, justifikazio nahikoa izango da enpresa hornitzaileak egindako gastu diruz lagunduen faktura.

10.5. Gastua justifikatzeko faktura eta ordainketa egiaztatzeko dokumentazioa honela kudeatuko dira: lehenengo justifikazio bat aurkeztu ahal izango da, lehenengo justifikazio hori aurkeztu baino lehen jasotako tratamenduari dagokiona, eta ondorengo justifikazioak, gutxienez hilabetez behingoak, tratamenduaren gainerako aldietarako. Justifikazio partzial bakoitzak onartu den laguntza ordaintzea ekarriko du hala badagokio, justifikazioari dagokion zenbatekoa, alegia, deialdi honetan eta uztailaren 20ko 32/2021 Dekretuan ezartzen diren mugak gainditu gabe. Nolanahi ere, justifikazio guztiak 2024ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira, baldin eta hilabete igaro bada eskatutako laguntza emateko ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Laguntza baten aurkako errekurtsorik aurkeztu bada, justifikazio agiriak aurkezteko epea zehaztu beharko da errekurtsioa baiesten duen ebazpenean; nolanahi ere, epe hori ezin da inolaz ere hilabete baino luzeagoa izan, ebazpenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren hurrengotik aurrera zenbatzen hasita.

10.6. Emandako laguntzaren konturako aurrerakina baimendu ahal izango da. Aurrerakina laguntza eskaeraren eredu normalizatuan eskatu beharko da. Laguntza emateko ebazpenean bertan azalduko da konturako aurrerakina eman dela. Konturako aurrerakina justifikatzeko epea 2024ko urriaren 31n amaituko da.

10.7. Laguntzak onuradunaren tutoreari edo legezko ordezkariari ordainduko zaizkio. Hala ere, enpresa hornitzaileari zuzenean ordaintzeko eskatu ahalko da, laguntza eskatzeko eredu normalizatu erabiliz. Laguntza emateko ebazpenean bertan azalduko da hornitzaileari zuzenean ordaintzeko aukera onartu dela. Salbuespenez, hornitzaileari zuzenean ordaintzeko aukera eskatu ahalko da edozein unetan, justifikatzeko epea amaitu baino lehen.

10.8 Izapidetze elektronikoa baliatuz gero, justifikazioaren dokumentazioarekin batera erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da, bertan jasotako informazioa eta dokumentazioa egiazkoak direla adierazteko.

Hamaikagarrena. Laguntzak pilotzea eta bateraezintasunen araubidea



Ematen diren banako dirulaguntzen zenbatekoa ezin da izan, banaka hartuta edo estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko edo erakunde pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako diru sarrerekin bat eginda, onuradunak jasotako zerbitzuaren kostua baino handiagoa.

Hamabigarrena. Azken klausula

Deialdi honen oinarriak erabat lotuko zaizkio honako xedapen hauetan ezartzen denari: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Gobernu Kontseiluaren uztailaren 20ko 32/2021 Foru Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretua, eta oro har aplikatu beharreko gainerako guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 18a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE

<p>▶ ARABAKO FORU ALDUNDIA</p> <p> Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea Instituto Foral De Bienestar Social</p> <p>▶ DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA www.araba.eus/ifbs/</p>	<p>Banakako laguntza ekonomikoetarako deialdia, garapen arazoak dituzten edo izateko arriskua duten 0-6 urte bitarteko adingabeentzat</p> <p>055</p> <p></p>
-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

DEIALDIAREN URTEA **Eskatzailearen datuak**Hurrengo hau denez: Onuraduna Legezko ordezkaria Lehen abizena Bigarren abizena Izena Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila Helbidea (jakinarazpenetarako) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa **Eskatutako dirulaguntzaren onuradunaren datuak**

(Eskatzailea eta onuraduna pertsona bera badira, ez bete)

Lehen abizena Bigarren abizena Izena Jaiotza data (eguna, hilabetea eta urtea) Sexua G E Nazionalitatea Egoera zibila Helbidea (Kalea/ Plaza) Zenbakia Blokea Eskailera Solairua Atea P.K. Udalerria Herria Probintzia /L.H. NAN/IFZ •AIZ • Beste bat Telefono finkoa Sakelako telefonoa Helbide elektronikoa Laguntza honentzat **ESKATZEN DU** :

BE 23/424

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA		
Lan etekinak eta jarduera etekinak		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
	€	
	€	
	€	
Pentsioak, sorospenak eta prestazioak		
Deskripzioa	Urteko zenbatekoa	Jasotzailea
Alargun pentsioa	€	
Erretiro pentsioa	€	
Baliaezintasun handia	€	
KGP/GOF/MGL	€	
Beste batzuk (zehaztu)	€	

FAMILIA UNITATEAREN ORAINGO DIRU SARRERA ETA ONDASUNEI BURUZKO ZINPEKO AITORPENA				
Balio higikorrek				
Deskripzioa	Hauek ditu jabetzan	Zenbatekoa/Saldoa	Etekina	Titularra
Aurrezki libretak/ Kontu korranteak		€	€	
Bonoak, zor publikoa, letrak ...		€	€	
Inbertsio funtsak...		€	€	
Akzioak/obligazioak...		€	€	
Beste batzuk (zehaztu)		€	€	
Balio higiezinak (ohiko etxebizitza, etxeak, hiri edo landa-finkak, gozamenak...)				
Mota	Deskripzioa	Katastroko balioa	Etekina	Titularra
		€	€	
		€	€	
		€	€	

Adierazten dut ez dudala beste balio higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan, ez eta Espainiako beste autonomi -erkidego batzuetan ere.

Eskualdaketak, Dohaintzak			
Deskripzioa	Data	Balioa	Hartzailea
		€	
		€	
		€	

- Agintzen dut GOFeri itzuliko dizkiodala eskatzen dudan laguntza onartu ondoren eskuratzen ditudan laguntza produktuak (II. Eranskinean berreskuratzeko modukoak izendatuta dauden produktuak).
- Eskatzen dut aurrerakina emateko, onartutako dirulaguntzaren kontura. Horrez gain, agintzen dut gastua egin izana justifikatuko dudala, deialdi bakoitzean ezartzen den epearen barruan.
- Eskatzen dut zuzenean hornitzaileari ordaintzeko emandako laguntza.

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DITUT HONAKOAK:

Eskabide honetan adierazitako datuak benetakoak direla.
Beharrezko egiaztapenak eta fitxategi publikoei kontsultak egiteko baimena ematen dudala, aitortutako datuak Administrazio Publiko eskudunen eskuetan daudenean bat datozela ziurtatzeko.
Badakidala aurrerantzean gerta daitezkeen eta 1. eskaera honi eragin diezaizketen aldaketen berri Gizarte Ongizatearen Foru Erakundeari ematera behartuta nagoela, 15 egutegi-eguneko epean aldaketa gertatzen den egunetik hasita.

-(n), 20 -(e)ko -ren -(e)an

Eskatzailearen sinadura

Legezko ordezkariaren sinadura*

* Eskatzaileak ez sinatzeko arrazoia

Dokumentu hau sinatuz, goian sinatzen duenak adierazten du informatuta dagoela eta **DBLO Lege Oharrean** (012. eranskina) aipatutako baimena ematen duela, bere datu pertsonalak erabil ditzan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak.

Datu pertsonalen babesari buruzko informazioa

Arduraduna	GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA San Prudentzio Kalea 30, 01005 Vitoria-Gasteiz, Araba. Tel: 945 15 10 15 Email DPD: dpd_ifbs@araba.eus
Xedea	Zuk emandako datu pertsonalak (norberarenak edo 14 urtetik beherakoenak, baldin eta haien tratamendua berariaz baimentzen baduzu zure legezko ordezkariarekin), hirugarrenen bidez lortutakoak (beste pertsona/erakunde publiko edo pribatu batzuk) eta zurekin lotzen gaituen harremanean sortutako beste edozein, GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEAK tratatuko ditu, Arabako Lurralde Historikoko herritarren gizarte-ongizatea eragin, sustatu eta hobetzeko (GOFE eskuduna den eremuan) Pertsona eta kolektibo kalteberei informazioa, arreta eta laguntza emanez, laguntza behar duten egoera pertsonal, familiar edo sozialetara lagunduz, egoera baloratuz eta premia zehaztetzeko baliabide, prestazio eta zerbitzu egokieneri buruzko orientazioa emanez. Zure datuak ere tratatuko dira zurekin harremana eta komunikazioa mantentzeko. Era berean, jakinarazten dizugu lortutako datuak eskatutako zerbitzu edo baliabidearekin lotutako profilak egiteko erabil daitezkeela. Tratatu beharreko datuen kategoria honako hau da: identifikazio-datuak, gizarte-inguruabarrei buruzkoak, enpleguari buruzkoak, ezaugarri pertsonalei buruzkoak, ezaugarri ekonomiko eta finantzarioei buruzkoak, kategoriaz bereziko datuak eta jasotako/emandako zerbitzuei buruzkoak.
Eskubideak	Bidezkoa denean, zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu edo tratatzearen aurka egin dezakezu, eta ez duzu erabaki automatizatu bakar baten xede izan behar. Horrez gain, zure gainerako eskubideak erabil ditzakezu, GOFEn webgunean, hain zuzen ere, <u>Datu pertsonalak babesteko atalean</u> .